

**INFORMAZIO-ZIRKULARRA: LANBIDE ARTEKO GUTXIENENKO SOLDATA 2025**

2025eko otsailaren 12ko BOEk **2025erako Lanbide Arteko Gutxieneko Soldata** (LAGS) berria argitaratu du, otsailaren 11ko 87/2025 Errege Dekretuaren bidez; horren arabera, LGASa **1.184,00 eurokoa izango da (urtean hamalau ordainsaritan)**, 2025eko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, industriako, zerbitzuetako edo nekazaritzako edozein jarduera-motatarako; edo, bestela esanda, hilean 1.381,33 eurokoa izango da (urtean hamabi ordainsari, hainbanatutako aparteko ordainsariak barne).

2024ko LAGSa 1.134,00 eurokoa zen (urtean 14 ordainsaritan); beraz, iazkoarekiko % 4,41 igo da aurtengo LAGSa.

87/2025 Errege Dekretuaren 1. artikulua arabera, Lanbide Arteko Gutxieneko Soldata eguneko 39,47 euro izango da, edo hilean 1.184,00 euro, soldata eguneko edo hileko ezarrita dagoen kontuan hartuta.

Era berean, 87/2025 Errege Dekretuaren 3. artikuluan xedatzen denaren arabera, **urteko gutxieneko soldata** ezingo da, inola ere, **16.576 eurotik** beherakoa izan.

<b>LANBIDE ARTEKO GUTXIENENKO SOLDATA 2025</b>	
Eguneko LAGSa	39,47 euro
Hileko LAGSa (14 soldata)	1.184,00 euro
Urteko LAGSa	16.576,00 euro

**Etxeko langileen** gutxieneko soldata **9,26 eurokoa** izango da benetan lan egindako **ordu bakoitzeko**.

Enpresa berean ehun eta hogeit hamar egun baino gutxiagoz lanean aritu diren **sasoiko edo aldi baterako langileei dagokienez**, 1. artikuluan aipatzen den gutxieneko soldata jasoko dute. Horrez gain, igande eta jaiegunetako ordainsariaren zati proportzionala ere jasoko dute, bai eta aparteko bi haborokinei dagokien zati proportzionala ere, haborokin bakoitza hogeita hamar eguneko soldatari dagokiola kontuan hartuta. Betiere, gogoan izan behar da soldatak gutxienez **56,08 eurokoa** izan behar duela, **legezko jarduera horretan emandako lanegun bakoitzeko**.

Errege Dekretu hau indarrean sartu da Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean, eta indarrean egongo da 2025eko urtarrilaren 1etik abenduaren 31 arte.